



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko martxoaren 25a

38. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Arauak, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen telelan-araubideko lanaldia eraentzen dutenak (2. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

—28/2020 Ebazpena, 2020ko martxoaren 24koa, Lehendakaritzarena, foru parlamentarien botoa eskuordetzeari buruzkoa, COVID-19 koronabirusak eragindako osasun-larrialdiko egoerari aurre egiteko (5. or.).

G saila:**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

Arauk, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen telelan-araubideko lanaldia eraentzen dutenak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko martxoaren 16an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1.- Jarraian jasotzen diren arauak onestea, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen telelan-araubideko lanaldia eraentzen dutenak:

“Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren Erabakia, zeinaren bidez eraentzen baita Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen telelan-araubideko lanaldia.

Lehen a. Xedea eta definizioa.

1. Erabaki honen xedea da Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen telelan-araubideko lanaldia eraentzea.

2. Telelantzak ulertuko da lantokitik kanpoko zerbitzu-ematearen modalitatea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzearen bitartezkoa.

Bigarren a. Telelan-araubideko lanpostuak.

1. Telelan-araubidepean egon ahalko dira idazkaritza Nagusiak zehazten dituen lanpostuak, baldin eta haietako jardunak ez badu behartzen jendeari edo foru parlamentariari zuzeneko arreta ematera, enpleguaren presentzia fisikora, edo kontaktu pertsonalak maiz izatera. Betiere, inguruabar horiek epaituko dira zerbitzuaren beharri zehazki baldintzatuturik.

2. Ezin izanen dira telelan-araubidekoak izan zuzendaritza-, koordinazio- edo ikuskapen-zereginak uztarturik dauzkaten lanpostuak, ez eta administrazio-unitateetako burutza ere, salbu eta ohiz kanpoko arrazoiengatik zerbitzu-ematearen modalitate hori komenigarria denean, ezinbestekoa den denboraz.

Hirugarrena. Telelanaren araubidea lanaldiari aplikatzea.

1. Telelan-araubideko lanpostuek lanaldi presentzialak izanen dituzte osagarri.

2. Lanegun bakoitza osoki emanen da telelan-ean edo zerbitzu presentzialetan, salbu eta ohiz kanpoko inguruabarengatik komenigarria denean laneguna bi modalitate horien artean banatzea.

3. Telelan bidezko zerbitzu-ematearen nahiz zerbitzu-emate presentzialaren aldi edo egun zehatzak administrazio-unitatearen arduradunak ezarriko ditu, enplegu publikoarekin adostuta, zerbitzu-beharrizanen eta eginkizun-programazioaren arabera.

4. Telelan bidezko zerbitzu-emateak hileroko lanaldian hartuko duen portzentajea baimentze-ebazpenean ezarriko da, ezertan galarazi gabe portzentaje hori aldatu ahal izatea enplegatua edo zerbitzuaren beharri zehazki ukitzen dituzten uste-kabeko inguruabarengatik; horretarako, beharrezkoa izanen da enpleguaren eta hura atxikita daukan administrazio-unitatearen arteko adostasuna. Edonola ere, telelan-lanaldiaren portzentajea ezin izanen da inoiz izan hila beteko lanaldiaren ehuneko berrogei baino handiagoa; halatan, nahitaezkoa izanen da gainerako denbora presentzialki ematea lanpostuan.

5. Ezohiko egoeretan, telelan-modalitateak lanaldi osoa hartu ahalko du.

Laugarrena. Telelan-araubidearen espezialitateak.

1. Telelan-araubideko zerbitzu-ematea borondatezkoa izanen da langileentzat, salbu eta ezohiko arrazoiengatik komenigarria denean zerbitzu-ematearen modalitate hori, ezinbestekoa den denboraz.

2. Telelan-araubideari atxikitzen zaizkion langileen eskubide eta betebeharrak lanaldia osoki

zerbitzu presentzialean ematen duten gainerako langileen berberak izanen dira.

3. Modalitate honi atxikita dauden enplegatu publikoei eskatu ahalko zaie, haiek atxikita dauden unitatearen lanak ez ezik, gainerako administrazio-unitateen edozein enkargu ere, baldin eta beren kidegoak berezko dituen eginkizunen artean badaude, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 1991ko martxoaren 20ko Estatutuan xedatuaren arabera.

4. Telelan-araubidean diharduten langileek eskubidea izanen dute segurtasun eta osasunaren arloko babes egokia izateko, eta betiere aplikatzekoa izanen da Laneko arriskuen prebentzioari buruzko azaroaren 9ko 31/1995 Legean eta hori garatzen duten arauetan ezarritakoa. Halaber, behartuta egonen dira informazioaren segurtasunari eta datu-babesari buruzko indarreko araudia errespetatzera.

5. Nafarroako Parlamentuak bere zerbitzuko langileei telelan bidezko zerbitzu-ematerako beharrezkoa den prestakuntza emanen die.

Bosgarrena. Telelan-araubiderako betekizunak.

1. Telelan-araubideko zerbitzu-emateak honako betekizun hauek betetzera behartuko du:

a) Telelan-modalitaterako modukotzat jotzen den lanpostu bat betetzea.

b) Telelana egiteko tokiak laneko segurtasun eta osasunaren arloko indarreko araudia betetzea.

c) Idazkaritza Nagusiak zehazturikoaren arabera softwarea duen ordenagailu pertsonal bat edukitzea edo edukitzeko konpromisoa hartzea, bai eta banda zabaleko konexio bat ere, informazioaren komunikazioa eta trukea, horren segurtasuna eta konfidentzialtasuna ahalbidetzen dituen. Langileari dagokio bere ekipamendu informatikoari egoztekoak diren gorabeherak konpontzea.

2. Aurreko apartatuan adierazitako betekizunak ez dira bete beharrekoak izanen lanaldia ezohiko arrazoiengatik telelan-araubidean eman beharreko suertatzen denean.

3. Ekipamendu eta tresna informatikoak Nafarroako Parlamentuak enplegatuari eskuratzearen ezohiko inguruabarretan, nahitaezkoa izanen da horiek lan-zereginetarako bakarrik erabiltzea.

Seigarrena. Telelan-araubidea lortzeko betekizunak.

1. Telelan bidezko zerbitzu-ematea baimentzeko prozedura hasiko da langile interesdunek

eskatuta, eta beharrezkoa izanen da kasuko langilea atxikita dagoen administrazio-unitatearen proposamen-txostena, zeina hamar egun naturaleko epean jaulki beharko baita.

2. Idazkaritza Nagusiak ebazpen arrazoitua eman beharko du eskaera baimentze edo ukatzeari buruz, eskaera hori aurkeztu eta hilabeteko epean gehienez ere. Ebazpenik eman ezean, epe horren iragate hutsarengatik ukatutzat joko da eskaera. Telelan bitartezko zerbitzu-ematea baimentzen duen ebazpena denbora zehatzerako izanen da betiere, eta gehieneko iraupena urtebetekoa izanen du.

3. Administrazio-unitate bereko enplegatu batzuek telelan-modalitatera atxikita egon nahi badute eta, antolaketa-afarak tarteko, ezinezkoa bada guztiei ematea baimena, txandakatze-aukerak agortu direnean edo enplegatuek eta Idazkaritza Nagusiak adosturik, lehentasuna honako egoerek izanen dute, hurrenkera honetan:

a) Genero-indarkeriaren biktima diren emakumezko enplegatuek.

b) Desgaitasuna duten langileek.

c) Familiaren bizitza eta bizitza pertsonala lanekoarekin uztartzeari dagozkion arrazoiak, hala nola norbere ardurapean hamabi urte baino gutxiagoko seme-alabak edo bigarren gradurainoko odol- nahiz ezkontza-ahaidetasuneko familiarteko desgaituak, mendekoak edo eri larriak edukitzea.

Kasu horietan, ezkontza-ahaidetasunaz eginko aipamenek barne hartzen dute, halaber, enplegatu publikoak eta senitartekoek izatezko bikotearen odol-ahaidetasunagatik duten ahaidetasuna. Erabaki honen aplikazioan efektu berberak izanen dituzte lehen graduko odol-ahaidetasunak eta legezko tutoretzak.

Desgaitasuna duten pertsonatzat jotzen dira abenduaren 2ko 51/2003 Legearen, Desgaitasuna duten pertsonen aukera-berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzkoaren, 1.2 artikulua hiru garren paragrafoaren arabera halakotzat hartzen direnak.

d) Etxetik lantokirako bidaiaren denbora eta distantzia edo zerbitzu nahiz garraio publiko batera iristeko zailtasuna.

e) Enplegatu publikoek ikasketa arautuak edo lanpostuarekin zerikusia dutenak izatea.

f) Ez edukitzea bateraezintasun baimendurik, sektore publiko nahiz pribatuko bigarren lanposturik, kargurik edo jarduerarik betetzekorik.

Baldin eta, aurreko lehentasun-irizpideak aplikatu ondoren, enplegatu publiko batzueganantzeko inguruabarrak beteko balira, berdinketa hausteko irizpidetzat hartuko da lanpostuko antzintasunik handiena.

4. Ezohiko inguruabarretan, Idazkaritza Nagusiak zilegi izanen du ebazpena ematea, lanpostu jakin batzuetan zerbitzu-ematea telelana-araubidekotzat deklaratzeko.

Zazpigarrena. Telelana-araubidearen amaiera.

1. Baimena edozein unetan indargabetu ahalko da, funtzionarioaren edo Idazkari Nagusiaren ekimenez. Azken kasu horretan, interesdunari entzutea eman beharko zaio, eta ematen den ebazpena arrazoitu beharko da zerbitzuaren beharrianetan, ezarritako helburuen ez-betetzeari, edo hasierako baimena oinarritu zuten gogoetak eta betekizunak funtsean aldatzen dituzten ustekabeko arrazoiak.

2. Halaber, baimena indargabetuko da ezarritako epea bukatzeagatik edo lanpostuan gehiago ez irauteagatik.

Zortzigarrena. Telelana-araubidearen kontrola.

1. Telelanean garaturiko eginkizunak kontrolatzeko irizpideen jartzaile izanen da lana-modalitate hori esleitzen zaion enplegatu publikoa atxikita dagoen administrazio-unitatearen gaineko ardura duen pertsona.

2. Oro har eta lehentasunez, errendimendua-ren kontrol edo ebaluazioa egingen da helburuen

betetzea edo emaitzen lorpena aintzat harturik, eta zilegi izanen da bitarteko teknologikoak erabiltzea nola eta eginiko lana egiaztatzeke kontrol gehigarriak tresna gisa.

3. Lanpostuan presentzialki emandako denboraren ordutegi-kontrola lanorduei buruzko araudiak ezarritakoari jarraikiz egingen da. Betiere, enplegatu publikoa behartuta egonen da bere administrazio-unitatearen arduradunari posta elektronikoko mezu bat bidaltzera, hala bere lanaldiaren hasieran nola bukaeran. Horrez gain, telefono-zenbaki bat eman beharko du, lanaldiak iraun bitartean berarekiko harremanetarako erabil daitekeena.

4. Telelana bitartezko gutxieneko zerbitzuetarako euskarri informatikoa 07:30etik 17:30era arte erabiltzekoa izanen da, lehenespenez.

Azken xedapenetan lehena.

Arau hauek ematen dira COVID-19 koronabirusari aurre egiteke kontingentzia-planaren osagarri diren ohiz kanpoko euste-neurrien babesean, halako moldean non haien indarraldia amaituko baita aipatu plana bukatzen denean.

Azken xedapenetan bigarrena.

Erabaki honek argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra”.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

28/2020 Ebazpena, 2020ko martxoaren 24koa, Lehendakaritzaarena, foru parlamentarien botoa eskuordetzeari buruzkoa, COVID-19 koronabirusak eragindako osasun-larrialdiko egoerari aurre egiteko.

Nazioarteko komunitate osoari eta Nafarroako Foru Komunitateari eragiten dieten ezohiko osasun-inguruabarrak direla eta, Parlamentuko gobernu-organismoek zenbait euste-neurri hartu behar izan dituzte koronabirusaren (COVID-19) hedapena saihesteko. Ezohiko moduan eta aldi baterako hartutako neurriak dira, osasun publikoko kontingentzia honek irauten duen aldira mugatzen direnak.

Ildo horretan, COVID-19ren hedapena murrizteko lanean ari diren osasun-agintariek berretsi egin dute presentzia fisikoa murrizteak onurak dakartzala, koronabirus bidezko esposizio- eta kutsatze-probabilitatea murrizteko ahalmen potentziala duelako. Horregatik, ebazpen honen asmoa da salbuespen-egoera horren aurrean parlamentu-erakundearen funtzionamendua eraginkor bihurtzea, Nafarroako Parlamentuaren parte-hartze politikoa eta funtzionamendua bermatuz, baina segurtasun-baldintzetan.

Horrela, ebazpen honen bidez, Erregelamenduaren 94.2.b) artikuluan aurreikusitako botoa eskuordetzeko kasuak zabalduko dira, eta

ospitaleratzeaz edo gaixotasun larriaz gain, osasun-krisietako osasunerako arrisku-egoeraren kasuak eta Ganberaren jardura murriztekoak jasoko dira.

Horrenbestez, lehendakaritza honek, aldezturik Eledunen Batzarrak erabaki loteslea hartuta eta Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 40.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, ondoko EBAZPENA eman du:

Lehen artikulua.

Foru parlamentariak, koronabirusaren (COVID-19) pandemiak sortutako osasun-alertaren ondorioz eta Parlamentuaren jardura murrizteko salbuespenezko neurria dela eta, botoa beste parlamentari bati eskuordetu ahal izanen diote.

Azken xedapena.

Ebazpen honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean hartuko du indarra.

Iruñean, 2020ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

